

LAUAXETA

ETA HOGEITA HAMARGARREN URTEKO BELAUNALDIA

1. Abertzale giroa europan

Hogeigarren gizaldiko hasieran Euskal Herrian literatura pizkundera nabaritu zen. Pizkunde honetan eraginik nagusienetako bat euskal kontzientziaren iratzartzeak izan zuen.

Pizte hori XIX. gizalditik zetorren. Ezagun da XIX. gizaldian abertzaletasuna Europa osora hedatu zela. Alemanian, hain zuzen ere, gizaldi horri "Das Zeitalter der Nationalitäten" deitzen diote: Nazionalitateen gizaldia.

Pentsalari ospetsuek, Johann Gottfried von Herder [1744-1803, Ikus bibliografia] handienetako bat delarik, herri guztiek zeinek bere izate berezia bazutela aldarrikatu zuten. Herri bakoitzak bere nortasunari eutsi behar diola.

Nortasunari eusteko, berriz, aurreneko urratsa hizkuntzari indar ematea zela eta uztarpean zeuden nazioek independetzia eskuratzea.

Horrela hasi zen borrokan ordura arte azpiratuta zegoen herri asko: Irlanda, Iparraldeko Italia, Jugoslavia, Hungaria, Grezia, Polonia...

Abertzale giro hori Euskal Herrira ere zabaldu zen. Iz da ahaztu behar, gudu karlistak euskaldunek beren buruez zuten abertzale kontzientziak eragin zituela.

Euskaldunek gerla karlistak eta foruak galdu zituztenean, Euskal Herria larri gorri gelditu zela ikusi zuen euskaldun askok.

Sabino Arana (1865-1903) kinka larri horretatik jalgitzeko, aterabide burutsua aurkitzen saiatu zen.

Euskal Herria, bere arazoak konpontzeko, ez zela Madrilera begira egon behar, ordura arte egiten zuen bezala. Euskal Herriak bere baitan ediren behar zuen sendabidea.

Lehen urratsa egiteko, euskaldunek Euskal Herria zer zen garbi jakin behar zuten. Euskal Herriaren muinetan euskara zegoela ongi asko ohartu zen Arana. Euskararik gabe Euskal Herria Erdal Herria bilakatuko zela. Beraz, euskaraz ikasteari ekin zion eta euskara nonahi zabaltzeari.

Bide beretik jo zuten Aranaren jarraitzaileek. Hizkuntza aurrera ateratzeko bi jokabide hartu zituzten.

- a) Irakaskintzan euskara sartu.
- b) Euskal literatura ugaltu eta sendotu.

Literatura pizteko asmo honetan, berriz, eta batez ere olerkigintza sendotzen, gizon argitsu bat nabarmendu zen: Jose Ariztimuño, Aitzol.

2. Jose Ariztimuño (Aitzol)

Jose Ariztimuño (Aitzol) Tolosan "Zeru Aundia" ostatuan sortu zen, 1896an. Hernanin ero zuten frankistek 1936an.

Bera izan zen Euskal Herriko literaturaren oldar berriaren sortzaile, suspertzaile eta norabideen emalea. Aitzol orduko olerkarien indarrak hiltzen eta goi mailara jasotzen ahalegindu zen. Berak sortu zuen euskararen alde aritu zen *Euskaltzaleak* taldea.



Aitzol eta Agirre.

Bi anaia josulagun (jesuita) zituen eta Comillasko apaiztegia hasi zituen ikasgaiak. Teologia Gasteizen egin zuen. 25 urterekin apaiz zen.

Gaztetatik maite izan zituen euskara eta euskal kultura.

Zacarias Martinez, Gasteizko gotzainak, misio-sailaren idazkari izendatu zuen.

Mateo Mujikak, berriz, 1926an Gasteizko gotzain egin zutenean, kargu hori kendu egin zion. Beasain ondoan dagoen Garin herrixkara bidali zuen.

1931ean Aitzolen eraginez El día egunkaria (Donostia) agertu zen. Egunkari horretan eta *Euskadin* (Bilbon ateratzen zen) 350ren bat artikulu idatzi zituen Aitzolek.



Lauaxeta,
Luis Sopelana eta
Patxo Elorza
lagunekin Aitzgorrin
(1933-8-28).

1933an euskal kulturaren eragin handia izango duen *Jakintza* aldizkaria sortu zuen (1933-1936). Hementxe idazten zuten orduko euskal olerkariak. *Euskal Erriaren alde* eta *Euskal esnaleak* (1931ean gelditua) utzitako hutsunea betetzera zetorren.

Manuel Lekuonarengandik ikasi zuen Aitzolek herriaren baitan nolako indar eta eragina zuen bertsolaritzak.

Teodoro Hernandorenaren eta beste batzuen laguntzarekin 1935ean eta 1936an "Bertsolari guduak" antolatu zituen, hots

bertsolari txapelketak. Basarrik eta Txirritak irabazi zituzten txapelketok.

Aitzol asko ikusia eta asko ikasia zen, Frantzian eta Belgikan barna ibilia. Liburu batzuk ere idatzi zituen, beti Euskal Herria begien aurrean zuela:


Lucha de idiomas en Euzkadi y Europa .

La muerte del euskera.

La democracia en Euzkadi.

Azken hau da ezagunena, behar bada.

Gudu Zibila hasi eta Belokera aienatu zen. Laster ordea, Hegoaldera itzultzea erabaki zuen. *Galerna* itsasontziaz Donibanetik hegoalderantz zetorrela, atzeman zuten espainol zaleek. Ondarretako espetxera eraman zuten eta ongi astindu.



Lauaxeta (erdian) bere lagunekin.

El diario Vasco Aitzolen atzematearen berri izan zuenean, hauxe idatzi zuen: "el energúmeno Aitzol, mal sacerdote y mal patriota".

Urriak 17an Franco zaleek Hernaniko kanposantuan ero zuten. Lauaxetak ez zuen azken hoberik izango.

Aitzolek, euskaren indartzeaz axolatuak ziren euskaldunekin, *Euskaltzaleak* erakundea antolatu zuen.

"Euskaltzaleak" erakundeak, euskararen alde Elgoibarren eta Mutrikun egindako bileretan izan zuen sorrera. 1930ean Zumaian elkartearen mailara jaso zuten. Laster bazituen 2.000 bazkide.

Olerkarien indarrak bildu eta goi mailara jasotzeko elkarte horretaz haliatu zen Aitzol.

Euskaltzaleek urtero Euskal olerkiaren eguna ospatzea erabaki zuten, olerki txapelketak antolatuz. Gerla zibila hasi arte ospatu zuten jai hori. Euskal antzerki eguna ere bai.

Aurreneko olerki txapelketa 1930. urtean izan zen Erreterin. Lauaxetak irabazi zuen "Maitale kutuna" olerkiarekin. Txapelketa horren inguruan orduko olerkaririk hoberenak bildu ziren. Hain zuzen ere olerkari horiei "30. urteko belaunaldia" deritzagu.

Hurrengo urtean (1931) Tolosan Lizardi izan zen irabazle, hurrengoan (1932) Hernanin Loramendi (Juan de Arana, Begoña'tar Jokin), Urretxun Patxi Etxeberria andoaindarra (1933), Jokin Zaitegi Zarautzen (1934), Jautarkol Arrasaten (1935), Iñaki Otamendi Lekeitioan (1936).

Irabazlearen olerkiak Aitzolek urtero *Eusko olerkiak* liburuetan ateratzen zituen.

Lehenago aldiz Euskal Herriko kondairan olerkari talde bat sortu zen. Talde horretakoek elkar ezagutu, elkar kritikatu eta maiz elkarri laguntzen zioten.

Olerkariok *bide barriak* ebaki zituzten olerkigintzaren alorretan, gora jaso zuten euskal bertsozaintza, ordura arte ezagun

ez ziren norabide zabalak aldarrikatuz.

30. belaunaldi talde honetan Luis Jauregi (Jautarkol), *Biozkadak* (1929), Loramendi (Juan Arana), *Olerki eta idatzi guztiak* (1960), Joakin Zaitegi, *Goldaketan* (1946), Barrenso (Tomas Agirre) *Gazigozoak* (1933).

Batez ere Lauaxeta (Esteban Urkiaga), *Bide barrijak* (1931) eta *Arrats-beran* (1935), Lizardi (Jose M. Agirre) *Biotz-begietan* (1932), *Umezurtz-olerkiak* (1932) eta Orixe (Nikola Ormaetxea) *Barne-muinetan* (1934) eta *Euskaldunak* (1934) gailendu ziren. Seinالاتzeko da askok izenordez idazten zutela.

3. Lauaxeta, Lizardi, Orixe

Esan dugun bezala, guztien artetik, Lauaxetak, Lizardik eta Orixeek gailurra jo zuten. Ordura arte ia nagusi



Lauaxeta gudari jantzita.

zen bertsolaritzatik erabat jasotzen dira. Hauen olerkietan gaia, ikuspegia, bertso moldeak, teknikak eta euskara bera ere diferente dira.

3.1. *Gaia*

Berrizaleok gai tradizionalak, aberria, herria, erlijioa, baserria ez dituzte zapuzten. Europako literaturan jorratutako gaiei ere ekiten diete, ordea.

Maitasuna kantatzen Lauaxeta nabarmenduko da: "Iturri negarra", "Neskatxa urdin jantzia" ... Gizarteko kezkek ere hausnartuko ditu: "Langile erailldu bati".....

Gai berrietan Lauaxeta Lizardi baino europarrago dugu.

Orixek mistikara joko du bai poesian, *Barne muinetan* eta bai hitz lauz, *Jainkoaren billa*. Bestalde, berak osotuko du gure baserriar eta arrantzaleen bizimodua ongien azaldu duen pocma loriotsua, *Euskaldunak*.

Lizardik, aldiz, eguneroko gaiak hautatuko ditu, soineko berri-berrietan jantzeko, baina.


3.2. *Ikuspegia:*

Bertsolaria gizartearen lekuko eta kronista da. Gauzak objektiboki erakusten ditu. Moralista da eta herriko euskarari lotzen zaio. Estilistikaren baliabide gutxi erabiltzen du.

30. belaunaldikoek, ostera, subjektibismora jotzen dute. Lirika alorrean sartu eta poesia hutsera hegaldatzen dira. Esan baino, iradoki egiten dute. Denotaziotik konnotaziora hegaldatzen dira. Kanpoko gertakizunak baino nahiago dute beren arima barneko mundua, sentimenduak eta ametsak azaltzea.

3.3. *Bertsomolde berriak*

Metrikan ere berrikuntza handiak datoz. Zortziko handia eta txikiak eta beste molde klasikoak baztertu gabe, atzerriko poe-



Lizardi eta Orixe.

ta modernoek ekarri zituzten molde berriak bereganatu zituzten.

Lizardik bertso neurketan erabateko askatasuna erakusten digu.

Lauaxetak, aldiz, European erabiltzen diren eta Euskal Herrian ezagun ez ziren moldeak sartuko ditu euskal olerkigintzan.

3.4. *Teknika berria*

Beren olerkiak moldatzeko olerkari berriok literatura baliabide guztiak erabiltzen dituzte. Tropo eta konparaketa oso landuez apaintzen dituzte olerkiak.

Lizardik batez ere inguruko gauzak begi berriz ikusteko dohain handia du. Euskal Herria inork gutxi ikusi duen argitan begiztatu du.

Maiz gauzak zuzen esatea baino sinbolistek zioten bezala hobe dute iradokitzea: "Sugerer c'est l'art". Zer esan baino, nola esan garrantzitsuago da.

3.5. Euskara

Bertsolarien euskara ulertterraza da, herriak erabiltzen duena. Bakan markatzen dituzte substantiboak adjektiboz. Hitz abstraktuak eskuarki arrotz zaizkie.

30. belaunaldiko olerkariok olerki modernoari dagokion euskara landua sortu nahi dute. Barneko mundua eta lirikaren eremuak ongi azaltzeko, hizkuntza aukerakoa eta zernahitarkoa behar zuten. Euskaraz ongi dakite. Euskalkiak ere bai, Orixek batez ere.

Zertu duten hizkuntza jori, anitz, aberats horrek gai egiten ditu 30. belaunaldiko olerkariok beren barneko amets lazgarriak eta bihotz zolan sumatzen dituzten grinarik ezkutuenak adierazteko.

Bertsolariek adjektiboak bakan erabiltzen badituzte ere, olerkari talde berri honek horixetan aurkitzen du munduaren kolorea eta barnekotasuna azaltzeko baliabide handia.

Lizardik eta Orixek hitzak elkartu eta esaldi trinko mami-tsuak sortzeko berebiziko gaitasuna dute.

Aldian batez euskara garbiegia darabilte. Erdal hitza zapuztean, ordea, euskara zorroztu eta moldatu egin behar dute. Bestetan aditz trinko herriak sortzen dituzte.

Irakurleoi sarritxo euskara ulergaitza egiten zaigu. Lizardi nabarmentzen da alor honetan. Hizkuntza aberatsa eta poetikoa sortzen, onena hera bada ere, batzuetan zer esaten duen ulertzeko, itzulpenaren beharrean gertatzen gara.

Ez da maila konnotatiboa ulertzen ez dena, Gongoraren lanetan bezala. Sarritxo maila denotatiboa hera ere erabat ilun gelditzen da.



Manu Robles-Arangiz, Lauaxeta, Juan Kareaga eta Jose Antonio Agirre.

Guztiok ederraren bila dabiltza beti. Etengabe gogoan dituzte Flauberten hitzok:

“Gauza bat mila modutara esan liteke. Mila modu horietatik, ordea, bat da egokiena. Horixe bilatu behar da”.

Antzeko ustea adierazten du Lauaxetak:

“El secreto de la poesía se oculta en la gracia de la forma, en la pulcritud del buen decir” (*Arrats beran*, Hitzaurrean).

Euskal literaturaren berpizte hau gudu zibilak moztu zuen. Euskaldunek gudua galdu zuten eta Francisco Franco buruzagi zutela, espainolak eta zenbait euskaldun ia 40 urtez erruki gabeko euskara errotik suntsitzen ahalegindu ziren.

4. Bibliografia

- BARRENSORO (Tomas Agirre), *Gazigozoak* (1933, *Uztaro* (eleberria) (1937).
- DUCROT, Oswald eta TODOROV, Tzvetan: *Dictionnaire encyclopédique des sciences du langage*. Editions du Seuil. Paris, 1985.
- ERZIBENGOA, J. eta EZKIAGA, P.: *Euskal literatura*. Lau ale. Mensajero, Bilbao, 1977-78.
- ETXENAGUSIA, Karmelo, KORTAZAR, J., ETXEBARRIA, A. *Euskal idaztelak bizkaieraz. Antologia, testu azterketak, ariketak. Labayru Ikastegia*, Bilbao, 1980.
- GARATE, GOTZON, *Lauaxeta Jesusen Lagundian*, Karmel 2003-4, 3-23.
- GARATE, GOTZON, *Lauaxetaren alderdi erromantikoa*, Karmel 2004-4, 3-22.
- GREIMAS, A.J. eta COURTES J.: *Semiótica. Diccionario razonado de la teoría del lenguaje*. Gredos, Madrid, 1982.
- HERDER, Johann Gottfried von [1744-1803, *Abhandlung über den Ursprung der Sprache*, 1772.
- JAUREGI, Luis (Jautarkol), *Biozkadak* (1929).
- KENNEDY, X.J.: *Literature. An Introduction to Fiction, Poetry and Drama*. Little, Brown and Company, Boston, 1993.
- KORTAZAR, JOI: *Euskal literatura XX mendean, Las Tres Sorores*. Prames: Zaragoza, 2000.
- LAUAXETA (Esteban Urkiaga), *Bide barridak* (1931) eta *Arrats-beran* (1935).
- LAWANDOWSKI, Theodor: *Linguistisches Wörterbuch*, 3 ale. Quelle & Meyer. Heidelberg. 1973-75.
- LINK, Jürgen: *Literaturwissenschaftliche Grundbegriffe. Eine programmierte Einführung auf strukturalistischer Basis*. Wilhelm Find Verlag. München, 1974.
- LIZARDI (Jose M. Agirre), *Biotz-begietan* (1932), *Umezurtz-olerkiak* (1934).

- LODGE, David: *The Modes of Modern Writing. Metaphor, Metonymy and the Typology of Modern Literature*. Cornell University Press. New York, 1977.
- LOPEZ GASENI, Manu, *Historia de la literatura vasca*. Acento Editorial, 2002.
- LORAMENDI (Juan Arana), *Olerki eta idatzi guztiak* (1960).
- MICHELENA, Luis: *Historia de la literatura vasca*. Minotauro, Madrid, 1960.
- ONAINDIA, Santi: *Euskal literatura*. 5 ale. Etor, Bilbao, 1972-1977.
- Orixe (Nikola Ormaetxea) *Barne-muinetan* (1934) eta *Euskaldunak* (1934).
- PENADES, JOSU: *Lauaxeta, historian bezurmamituriko sinesmena: kulturaren eta sinesmenaren arteko elkarriketarako elkargaia: solidaritza bizi-arrazoi*, 1996 Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 1996.
- RICCHARLSON H. EDWARD and FREDERICK B. SHROYER: *Muse of Fire. Approaches to Poetry*, Alfred A. Knopf, New York, 1983.
- SARASOLA, Ibon: *Historia social de la literatura vasca*, Akal, Madrid, 1976.
- Style in Language*. T. Sebeok (ed.) The Technology Press of Massachusetts. Institute of Technology. New York 1981.
- VILLASANTE, Luis: *Historia de la Literatura Vasca*. 2ª edición. Aranzazu, Oñate, 1979.
- ZAITEGI, Joakin : *Goldaketan* (1946).
- ZUIOAGA, Eneko: *Historia de la literatura vasca*.

Gotzon Garate